



Angel Gonzalez Katarain ordiziarrek gidatutako 'Siete calles de La Habana' proiektuaren barruko bigarren dokumentala emango dute gaur Ordiziako Herri Antzokian: 'Zulueta, azúcar moreno'.

Ereindako hazien arrastoan

Iñaki Gurrutxaga

Hemezortzi urteko neska beltza, haurra izan berria, baina haurrik gabe, 250 pesotan. Alokatu ere egin daiteke. San Agustín eta Santa Clara artean Lizundia andereak duen arropa dendan informazio gehiago. Gisa horretako iragarkiak ohikoak ziren XVIII. mende bukaerako eta XIX. mendeko Kubako egunkarietan. Aipatu iragarkia *La Gaceta de La Habana* egunkariak eman zuen argitara, 1794ko urriaren 20an.

Esklabotza zen Kuban garai hartako sistemari eusteko oinarria, Afrikatik Amerikara eramandako milaka beltzen eskulnik gabe ezinezkoa izango baitzen garaiko dirudunentzat bizi maila horri eustea. Testuinguru horretan ailegatu zen Karibeko uhartera Julian Zulueta Amondo (Anuzita, Araba, 1814). Garai hartan agintariekin eskuz esku lan egin zuen Zuluetak, azukrearen industrian eta mailegu-emale lanetan ere jardun zuen, eta baita pertsonen trafikoa ere.

Haren eragina zenbaterako izan zen neurtzeko, esan, La Habana-kale bati haren izena jarri ziotela –gerora Agramonte izena jarri zioten, jauntxo horien aurka



Habanako Zuluetakale kaleko auzotarrak. ARG.: SEMILLAS EN EL TIEMPO/ZULUETA



Zulueta omenezko dantzaldia Alava azukre findegian.

borroka egin zuen kubatar baten omenez-, baina oraindik ere, askok eta askok Zulueta deitzen diote kale horri. Eta aintzat hartzeko moduko beste datu bat: gaur gaurkoz Colon herriko Alava azukre findegian bizi diren 2.800 pertsonetatik %68 beltzak dira. Horietatik %25ak Zulueta du lehen abizena, eta %8ak biak.

Euskaldunen eragina aztertuz

Arlo Willek, Eduardo Marrerok, Javier Arzuagak, Felix Juliok, Cecilia Arrozarenak eta beste hainbatek urteak zeramatzen Kuban hango historia ikertu eta euskaldunek lurralde urrun hartan izan zuten eragina aztertzen. Angel Gonzalez Katarain ordiziarra 2009an hasi zen haiekin lankidetzan, eta haiek esku artean zuten material guztia ikus-entzunezkoetan biltzeko *Semillas en el tiempo* ekoiztetxea sortu zuen. «Ikerketa historikoa lantzeko proiektu bat da, eta euskal kulturak Kuban eta munduko beste toki batzuetan izan zuen eragina ikus-entzunezkoen bidez berreskuratzea da helburua».

Siete calles de La Habana (Habanako zazpi kale) da proiektu orokor horren baitan argia ikusten ari diren bat. Habanan euskal izenak dituzten zazpi kaleren inguruan zazpi dokumental

egitea da Katarainen asmoa. *Belaskoain* izan zen lehena, eta *Zulueta: azúcar moreno* bigarrena. Ordiziako Herri Antzokian emango dute gaur (20:30) bigarren hori. www.semillaseneltiempo.com webgunean ere eskura daiteke. Aurreko astean Hondarribiako (Gipuzkoa) Banako tabernan ikusi ahal izan ziren bi filmak.

«Ilusioa egiten dit dokumentala Ordizian proiektatzea, proiektu honekiko interesa azaldu duen lehen herrietako bat izan baita».



Ikerketa historikoa lantzeko proiektu bat da, euskal kulturaren eragina berreskuratzeke»

«Mediatikoki eragin gutxi duen lan bat egiten ari gara, baina balio historiko handikoa»

ANGEL GONZALEZ KATARAIN
Dokumentalaren zuzendaria

Katarainen esanetan, laguntzarik ez dute jaso proiektua garatzeko, eskatu ere ez dutelako egin. «Mediatikoki eragin gutxi duen lan bat egiten ari gara, baina balio historiko handikoa, batik bat izan dezakeen bilakaerarengatik. Urratsez urrats joango gara».

Mauka berria GAURKO ESKAINTZA

Zure bizitzaren oreka yogari esker aurkitu

SURYA YOGA OIARTZUN
MAMUT bulego eraikina
Astigarragako bidea, 2 4 eskubia 1
20180 OIARTZUN GIPIZKOA
Tel.: 670-69 24 04
www.yoga-oiartzun.com

Prezioa **15€**

berria taldea

www.mauka.eu

→ Laburrak

Ipuin kontaketa saioa gaur Mertxe Aizpuruarekin

KULTURA Aurreko ostegunean bezalaxe, Mertxe Aizpuruak ipuin kontaketa saioa egingo du gaur, hilak 24, Ordiziako Udal Liburutegian, 17:30ean. Antolatzailak adierazi dute lau eta bederatzi urte arteko haurrentzako dela egokia gaurko saioa.

Oianguko tabernarako esleipen berria martxan da

UDALA Ekainetik irailera bitartean Oiangu parkeko taberna kudeatzeko esleipena egingo du aurten ere Ordiziako Udalak, eta jakinarazi du interesatuek hilaren 30a arteko epea dutela izena emateko. Oinarrizko prezioa hileko 200 euro izango da, eta ezarri beharreko bermea 6.000 eurokoa. Esleipenerako pleguak udalaren webgunean eta Herriarren arretarako bulegoan kontsulta daitezke.

Majoriko zuzendaritzarako onartuen zerrenda ikusgai

UDALA Herenegun geroztik ikusgai dago Ordiziako Udalaren webgunean Majoriko zuzendari lanposturako onartuen behin-behineko zerrenda. Kalifikazio epaimahaiaren erabakiaren arabera osatu da zerrenda. Onartuak izan ez diren hautagaiek, berriz, bihar arteko epea dute erreklamazioak jartzeko, martxoaren 6an egindako bileran Administrazio Kontseiluak arautu bezala.